

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure produktuak arrakasta izan dezan, bezeroak erantzunkizun garrantzitsua du. Ondorioz, bezeroaren eta saltzailearen arteko harremanak ezin hobea izan behar du. Gure motibazioa gero eta bezero gehiago lortzea eta salmentak handitzea da. Bezeroak erakartzeko, gure produktuak prezio baxuagoan eskainiko ditugu denboraldi batean, horrela, jendea gure produktuak erostera animatuko da.

Horretaz gain, gure webgunean bezeroentzako zerbitzu automatizatu bat sortuko dugu beren eskaerak egin ahal izateko. Lehendabizi, robot batek bezeroen zalantzak argituko ditu edota haien galderak erantzun. Eta arazo sakonagoak badituzte, benetako pertsona batek beren galderei edo zalantzei erantzungo dien zerbitzu pertsonal bat eskainiko dugu.

